

AGUR, LARREATAR KOLDOBIKA MIRENA GOTZAIA!

1. Koldobika Mirena
Gotzai Agurgarri!
Gaur zeu nahi zaitut bertso-
kantura ekarri.
Orain hamasei urte
zinduezan jarri
Bizkaiko Eleiz-buru,
batasun-lokarri.
Hona hemen gaur danok
agurka alkarri.

3. Honetan jarri dozu
zuk gotzai-dohaia:
alkarlanean jardun
ta bultzatzen saia.
Lehenen aldarea ta
gero batzar-mahaia,
gogo beroz onartuz
gehiengoen nahia.
Hagaitik esker onez
daukazu Bizkaia.

5. Ikuskizun ederra
Begoña beterik!
Esker on ta txaloak,
han ez zan besterik.
“Ahalegindu naz, baina
ez dago bakerik,
ez neban nahi Herria
honela izterik...”
Horrexek jartzen zaitu
pixka bat tristerik.

2. Koldobika Mirena,
gainera Larrea,
ezaugarritz: bakea
ta irribarrea.
Zenbat ahalegin haundi
kentzen hasarrea,
eztia erabiliz
ta ez ezpatea...
Bakez izten dozu gaur
Bizkaiko larrea.

4. Fedea ta Euskera
dozuz altxorrian,
batera jaso dozuz
biak jatorrian.
Sendo babestu dozuz
garai gogorrian,
eta gogoz bultzatu
joan-etorrian.
Biokaitik gaituzu
betiko zorrian.

6. Aita izan zaitugu
zu gure artean,
eskerrik asko, Koldo,
bihotzak betean,
besarkada estu bat
txaloka batean.
Bizi zaitetz luzaro
osasun bakean;
ez zaitugu ahaztuko
Bizkaia maitean!

A. Martzel.